Katu momifikatu bat
Un gato momificado

Objektua ■ Objeto
Prozesu naturalaren bidez momifikatutako katua
Gato momificado de forma natural

Jatorria ■ Procedencia
Billoda (Araba)
Víllodas (Álava)

Baserri bat zaharberritzeko obretan eskailera-zuloan aurkitua.
Encontrado en el hueco de la escalera durante las obras de restauración de un caserío.

Katu momifikatuak, gaizkiaren aurkako babes

Magiaren eta sorginkeriaren boterearenganako sinesmenak presentzia sakona eta iraunkorra du Europako herri kulturan; jendeak objektu eta animalia asko sortzen eta ezkutatzen zituen gaizkiaren molde guztietatik babesteko. Ehunka kasu daude mundu osoan.

Babesteko ahalegin horren xede izan dira Erdi Aroan eta ehunka urtez etxebizitzak, ukuiluak, monasterioak, elizak eta katedralak: objektuak eta animaliak erritu bidez eta sekretuan ezkutatzen ziren, energia negatiboak eta naturaz gaindiko arriskuak geldiarazten edo desbideratzen saiatzeko.

Une jakin batean, eraispen baten edo mantentze edo birgaitze lanen ondorioz, objektu edo animalia horiek agerian geratzen dira, erritu eta ohitura horietatik oso urrun dauden pertsonen begien aurrean. Eta askotan, zaborretan amaitzen dute.

Praktika horiek XX. mendera arte jarraitu zuten, eta oso objektu interesgarriak eskaini dituzte haien kontserbazioari dagokionez.

Gatos momificados, protección contra el mal

La creencia en la magia y en el poder de la brujería tiene una presencia profunda y duradera en la cultura popular europea; la gente creaba y ocultaba muchos objetos y animales para protegerse de lo maligno en todas sus formas. Hay cientos de casos en todo el mundo.

Viviendas, establos, monasterios, iglesias y catedrales han sido objeto de ese intento de protección desde la Edad Media y durante cientos de años: la ocultación ritual y en secreto de objetos y animales se usaba para intentar detener o desviar las energías negativas y los peligros sobrenaturales.

En un momento dado, a raíz de una demolición, obras de mantenimiento o de rehabilitación, estos objetos o animales quedan expuestos y se muestran ante los ojos de personas muy alejadas de aquellos ritos y costumbres. Muchas veces, acaban en la basura.

Estas prácticas continuaron hasta el siglo XX y han proporcionado objetos muy interesantes en cuanto a su conservación.

Katu eta arratoi momifikatuak. Dublingo katedrala (Irlanda)
Gato y rata momificados. Catedral de Dublín (Irlanda)

Hortzak
Dentadura

Erpe
Zarpa

Zergatik kontserbatu da? Momifikazio naturala

- Toki itxietan, lehorrak, beroak eta aireztatuak.
- Lehortze azkarra: 1–12 hilabete.
- Entzimek ezin dute jardun: usteltzea inhibitzen da (katuaren gorpuari erreiak kentzeak ere laguntzen du horretan).
- Gorpuak pisua eta bolumena galtzen du eta zurruna,hauskorra eta okre kolorekoa bihurtzen da.

¿Por qué se ha conservado? Momificación natural

- En ambientes cerrados, secos, cálidos y aireados.
- Desecación rápida: 1–12 meses.
- Las enzimas no pueden actuar: se inhibe la putrefacción (la evisceración del cuerpo del gato ayuda también a ello).
- El cuerpo disminuye en peso y volumen y se vuelve rígido, quebradizo y de color ocre.

KONTSERBAZIOA

Egindako esku-hartzea:

- Gainazaleko zikinkeria kentzea.
- Anoxiaren bidez intsektuak kentzea.
- X izpi bidezko azterketa.
- Kontserbatzeko enbalajea.
- Ingurumen kontrola.
- Dokumentuen bilaketa.
- Zabalkundea.

CONSERVACIÓN

Intervención realizada:

- Eliminación de la suciedad superficial.
- Desinsección con anoxia.
- Estudio a través de RX.
- Embalaje de conservación.
- Control medioambiental.
- Búsqueda documental.
- Divulgación.

Nolakoa zen katua bizirik zegoenean?

- Heldu gazte bat zen (hortz eta hezurrengatik).
- Itxuraz egoera onean zegoen.
- Lepoan kolpe bat emanez hil zuten eta, ezkutatu aurretik, erreiak kendu zizkioten.
- Ilegorria zen (iraun duten ileengatik dakigu).

¿Cómo era el gato en vida?

- Era un adulto joven (por sus dientes y huesos).
- Aparentemente estaba en buen estado.
- Fue sacrificado con un golpe en el cuello y eviscerado antes de ocultarlo.
- Era pelirrojo (por los pelos conservados).

@FlorianKatua

LG G 1102-2023

Zaharberrikuntza Zerbitzua
Servicio de Restauración
Urartea, 4 • 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 18 20 50
restauraciones@araba.eus

araba álava
foru aldundia diputación foral